

## Badatoz Eguberri jaiak



Gain-gainean ditugu Eguberri jaiak eta aurten ere egun berezia izango dugu Zerainen abenduaren 24a, Gabon eguna. Goizeko 9etan kultur elkarteak eta parrokiak antolatuta, gaztetxo eta ez hain gaztetxoen taldea Barbari aldetik abiatuko da etxez etxe kantuan eta eskean aritzeko. Goizean urrutien dauden auzoak pasako dituzte, eta arratsaldean herri-kaskoa. Biltzen duten diruaren erdia kultur etxeko urteko ekintzak antolatzeko izango da, eta beste erdia beharrez daudenei laguntzeko bideratuko da Caritasen bidez. Goizeko 9:30etan berriz, herriko eskolako haur, irakasle eta gurasoak irtengo dira herri-inguruan alai kantatzera. Jasotako diruaren zati bat eskolako beharretarako erabiliko dute eta beste zati bat garapen bidean dagoen herrialde bateko hezkuntza beharrei laguntzeko. Iluntzeko 7ak aldera, Olentzeroren bisita izango dugu eta Uharka abesbatzak eta umeek ongietorria emango diote kantuz. Ea gauean ere ondo-ondo portatzen den mendietako ikazkin zaharra.

## Su hermandadearen ezohiko bilera abenduaren 23an

Duela gutxi, azaroaren 18an, bi urtez behin egiten den batzar orokorra egin zuen Zeraingo su hermandadeak. Bilera hartan, su hermandadearen funtzionamenduan berrikusteko hainbat gai atera ziren, eta horiek lantzeko ezohiko bilera deitu dute juntako arduradunek. Bilera hori abenduaren 23an, igandean, egingo da eguerdiko 12etan udaletxean.

Igandeko bileran, juntak bere kabuz landu eta prestatu duen proposamena aztertuko da lehendabizi. Ondoren, alta, baja eta aldaketen puntuari helduko zaio. Eta jarraian, etxebizitza hutsen eta besteen kuoten erreposoa eta berrikuspina egingo da. Azkenik, junta berritzea gauzatuko da.

Su hermandadeko kideren batek baja eman edo aldaketaren bat egin nahi badu eta igandeko bilerara ezin badu etorri, juntakideren bati jakinarazi behar dio bilera egunaren aurretik.

## Madriren saritu dute Zeraingo herri proiektua

Zeraingo Udalak aurkeztutako "Zerain Paisaia Kulturala: Herriaren oraina eta geroa" proiektuari saria eman dio Madrilgo Conama Fundazioak. Iraunkortasunaren eta ingurumenaren ikuspegitik ekonomiaren erronka berriei erantzutea helburu duen fundazio honek antolatzen duen sariketari akzesita lortu du Zeraingo herriak. Zerainen ondarea zaindu eta garapen turistikoa eta ekonomikoari loturik azken urteotan egindako lanetatik eman digute saria 5.000 biztanlez beherako herrien kategorian.



Sari banaketa joan den azaroaren 28an egin zen, eta saria jasotzeaz gain, gainontzeko proiektu sarituak ezagutzeko aukera ere izan zuten Udaleko ordezkariak.

## Gaztainak, taloak eta txotxongiloak azaroan

Azaroaren 10ean gaztaina eta talo janerako bildu ginen haur guraso eta herritarrak. Eguraldiak asko lagundu ez zuen arren, giro polita sortu zen eta gaztaina ale batzuk biltzeko gai izan ginen.

Urteetan talo janean esku bat botatzen dutenekin gogoratu, haurrek oroigarri txiki bana oparitu nahi izan zieten. Eskerrik asko horrelako talo goxoak egiten irakasteagatik!



Azaroaren 30ean berriz, Tolosara Txotxongiloak ikustera joan ginen haur eta gurasook, ikusiko bazenute aho zabalik nola begiratzen zieten txotxongiloek gure txikiak...

Azkenik, aurten ere Ikastolako baratza martxan jarri behar dugula kontu nahi dizuegu, aurreko urteko emaitza onak ikusita. Lehenik aurre-

ko urteko laguntzaileei eskerrak eman nahi dizkiegu eta bide batez herritar guztiei deialdia luzatzen diegu aurten ere haurrei baratzan lagundu eta erakusteko.

*Basarte Guraso Elkarte*

## Santa Zezilia, eta beste hainbat festa-ospakizun



Azaroaren 23an, ostirala, Uharka abesbatzako kideek Santa Zezilia eguna ospatu zuten tabernetan abestu eta elkarrekin afari ederra eginda. Azken urteotako ohiturari jarraituz, afalostean ere ez zen kanturik falta izan.

Horrez gain, azaroan zehar nahiz abenduaren hasieran ez da festa eta

ospakizunik falta izan Zerain aldean. Mandio tabernan talo jana eta garagardo festa antolatu zituzten bi ostiraletan. Ostaturik, berriz, ardi-jatea prestatu zuten abendu hasierarako. Eta horiez gain, urteroko ohiturari jarraituz gazteen eta helduen barrikoteak egin ziren soziedadean. Jan-edanerako izan da hamaika aukera!

## Mendi larreak erabiltzeko izen-ematea

Herriko ganaduzaleek Partzonerian edo herri larretan ganaduak eduki nahi badituzte, udaletxean eman behar dute izena. Datorren urtean, Partzonerian ganadua erabili nahi dutenek abenduaren 30a baino lehen eman behar dute izena udaletxean. Zeraingo herri larretara ganadua bota nahi dutenek, berriz, urtarrilaren 20 arteko epea dute izena emateko.

Izena emateko asmoa dutenek hainbat dokumentu eraman behar dituzte udaletxera. Lehenengo aldia dutenek honakoak aurkeztu behar dituzte: Nekazaritza ustiakuntzako txartelaren kopia, NAN kopia, ganaduen identifikazio agiria, larreetara igoko den ganadu kopurua.

Aurrez ere Partzonerian edo herri-mendietan ganaduak erabiltzen badira: Larreetara igoko den ganadu kopurua eta abereen identifikazio agiria. Informazio gehiago jasotzeko edo zalantzaren bat argitzeko, udaletxera jo daiteke.

## Herria etengabe nola berritu eta egokitu hausnartzeko jardunaldia egin zen azaroaren 9an eta 10ean

**Z**erain herri eredu: nola berritu eta egokitu etengabe? Izenburupean open space formatua erabiliz, jardunaldia egin zen Zeraingo elizan azaroaren 9an eta 10an. Ostiral arratsaldean eta larunbat goizean zehar zeraindarrek nahiz kanpotik etorriek hainbat galderaren inguruan hausnartzeko aukera izan zuten: Zein balore ditugu? Zer sendotu behar dugu? Nola biziberritu dezakegu gure herri proiektua?

40 lagun inguru elkartu ziren guztira eta nahi adina gai eta jarduera proposatzeko aukera izan zuten. Gai horien inguruan taldeka jarrita nahi bezain sakon hitz egin zuten eta jardunaldian bertan guztien artean txostena osatu eta partaide guztien nahiz beste edonoren eskura jarri zen. (Txostena <http://zerainherriedua.wordpress.com/helbidean> dago ikusgai).

Partaideek eurek proposatuta 14 gai atera ziren mahaira eta horien gainean eztabaidatu zen: 1) Parte hartzea / Auzolana / Komisioak: horien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak: Parte hartzea da? Funtzionatzen du? 2) Agintariak Behar al ditugu Zerainen? Nola aukeratu? 3) Biztanleria kopurua herri orekatua egiteko eta etxebizitzak 4) Zerain eta Mutiloaren arteko elkarla-



na 5) Nola bermatu herriaren jarraipena (biztanle kopuru aldetik, zerbitzuak mantendu alde, herritarrei bertan gelditzeko aukera bermatu 6) Industrializazioak galbidean jarritako kultura berreskuratzeak: elkartasuna/lana/sinesgarritasuna 7) Herritarren betebeharrak eta eskubiak 8) Etorkezunari begira ze zerbitzu behar ditugu? oraingoak nola mantendu behar ditugu? 9) Lurrarekiko harremana 10) Nola jarraitu aitzindari izaten? Etengabe berritzeko zer egin? 11) Euskararen kalitatea 12) Lurraren erabilera etorkizunean Zerainen 13) Udaleko finantziario berriak nola lortu 14)

Hau guztia bideratzeko metodologia.

Giro ederrean joan zen azaroaren 9 eta 10eko jardunaldia. Partaideak, herritarrek nahiz kanpotik etorritakoak gustura geratu ziren ostiral arratsak eta larunbat goizak eman zuenarekin. Gainera, merienda, afari, hamaiketako nahiz bazkaritan eztabaidan jarraitzeko aukera ere izan zuten.

Jardunaldian bertan aipatu bezala, bi egun haietan landutakoa bere horretan gera ez dadin, hari jarraipena ematea izango da hurrengo eitekoa. Helburuak jarri eta ekintza plana eginez lehenik, eta ahal den neurrian hura garatuz ondoren.

### 80 Egunean filma emango da abenduaren 28an

Datorren ostiralean, abenduak 28, 18:00etan *80 Egunean* filma emango da Kultur Etxean, parekidetasunerako komisioak antolatuta. Eta pelikula ikusi ondoren tertulia egingo da berau komentatzeko. Pelikula hau Jon Garañoren eta Jose Mari Goenagaren euskarazko produkzioa da, eta 70 urteko bi emakumeren arteko harreman berezi baten istorioa kontatzen du, eta nazioartean hainbat sari eta aipamen jasotako lana da. Beraz, aukera polita euskal zine ona eta kritikoa herrian gozatzeko.



### Sendian ikastaroa egin dute hainbat herritarrek

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak bultzatuta, eta Zeraingo Udaleko Gizarte Zerbitzuen laguntzaz, *Sendian* programaren barruan "Emozioak kudeatzen" izeneko ikastaroa egin dute hainbat herritarrek abendu hasieran. Hiru arratsaldetan zehar, adineko pertsonak zaintzeari buruz gogoeta egiteko eta eztabaidarako aukera egon da kultur etxean. Parte hartu dutenak oso gustura geratu dira kursiloarekin.

Babesetik

URRIA	al	ar	Az	og	or	lr	ig
	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0,75
C° altuena	19,6	22	22,3	23,4	26	27,1	24,4
C° baxuena	6,5	7	8,5	12,8	11,5	16,3	16,5
	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>
Euria (l/m)	0	0	2	10	6	0	13
C° altuena	28,5	26,3	23	24	16,5	18,7	18,7
C° baxuena	15,5	16	15,5	15,4	13	8	8,5
	<b>15</b>	<b>16</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>19</b>	<b>20</b>	<b>21</b>
Euria (l/m)	5	3	0	15	33	26	14
C° altuena	15,7	17,5	21,4	20,6	14	13,7	15,3
C° baxuena	9	8	12,5	18	12,5	11,3	11,8
	<b>22</b>	<b>23</b>	<b>24</b>	<b>25</b>	<b>26</b>	<b>27</b>	<b>28</b>
Euria (l/m)	4	0	0	4	8	33	13
C° altuena	18,3	18,3	21,6	19,5	17	12,5	8,5
C° baxuena	12,5	10	10,3	14,5	14,5	11	3
	<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>				
Euria (l/m)	0	0	0	GUZTIRA : 190,25l.			
C° altuena	11,4	14,0	15,5	ALTUENA: 28,5 °			
C° baxuena	0	2	2,7	BAXUENA: 0 °			

## Urria bustia

Bustitik joan zitzaigun urria. Ehizerako baino eguraldi hobea izan genuen, oro har, perretxikutarako (nahiz eta sobran-te inork ez zuen bilduko). Guztira ia 200 litro bota zituen, eta hego haizearekin egun batzuetan temperatura goitik ibili bazen ere, hila amaitzerako izotza ere ez zen urruti ibili. Usotarako baino bestelako uzta pilatzeko urri hobea joan zen; adibidez, argazkiko mizpirak biltzeko.



## Goi Tentsioko linearen aurkako protesta Barbariko haitzean



Nafarroatik Ezkio Itsasora egin nahi duten goi tentsioko linearen aurkako protestek aurrera jarraitzen dute. Herrian egindako azken aldarrikapena leku sinboliko bezain berezi batean izan zen: Barbariko haitzean. Abenduaren 1ean, Zeraingo nahiz inguruko herrietako dozenaka lagun elkartu ziren Barbariko haitzaren puntan autopista elektrikoaren aurkako jarrera erakusteko. Izan ere, azken asteetan, Red Eléctrica Españolako hainbat teknikari Barbari aldean ibili dira neurketak eta markatzeak egiten. Eta ikusten denez, Barbariko haitzean jarri asmo dute postetzarretako bat.

Barbariko protestaren ostean, goi tentsioko linearen aurkako Goierriko plataformak prestatu duen dokumentala ikusteko aukera egon zen Mutiloan. Azken hilabeteotan bezala, protestan eta lanean jarraituko da aurrerantzean ere autopista elektrikoa eratzeke asmoarekin.

## Oiharten eta Otatzan prest dute txotxa

Urte berriarekin batera, gure herriko sagardotegietako txotxak irekitzeko garaia ere badator. Oiharte sagardotegiak urtarrilaren 12an, larunbata, inauguratuko du denboraldia Goierriko bertso eskolako bertsolariekin eta herriko trikitilariekin. Otatza aldean, berriz, hurrengo astean, urtarrilaren 18an irekiko dituzte atea eta kupelak. Batean zein bestean, umore ona ez da faltako irekiera egunetan. Animatu eta gozatu!

## Basazabal saritua

Basazabalgo gaztek Zerainen eta ingurunean ez-ezik, urrutiago ere badute estimua. Udazken honetan, nazioarteko bi sari irabazi dituzte Jabierren gaztek. Austrian egiten den sariketa batean saritu zuten lehenik, eta ondoren, Ingalaterrako beste lehiaketa batean hiru sari lortu ditu. Zorionak Basazabalgo familiari!

## Mendian federatzeko

Kirol komisioak bultzatuta, 2013an mendian federatu nahi dutenei eskaintza egiten zaie. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena urtea amaitu aurretik.